

Joxemari Carrere

IPUIN KONTALARIA

Kontalaritza zer ote?

Ipuin kontalaritzan dugun noizbehinkako eztabaida da, ea gurea antzerkia ote den edo beste zerbait. Izan ere, definizioen jendarte honetan ezinbestekoa da norbere jardunaren nondik norakoak ahalik eta zehatzen azaltzea. Literatur generoak, musika estiloak, antzerki ikuspegiak, dena sailkatzen da eta definitu. Behar al du, baina, sormenak halako sailkapen sukarrrik? Sortzailak behar al du? Nago gehiago dela merkatuaren arrazoia, hemen ere, gailentzen dena. Eta merkatuak, kulturaren ere, antolamendua behar du (nahiz eta azken boladan antolamendu hori sasikoa izan). Ipuin kontalaritza antzerkitik bereizteko kezka, kultur merkatu horretan izen propioaren beharrak bultzatu du hein handi batean. Kontalaritzaren nondik norakoak zertan diren azaldu beharra. Sormen ekintza berezkoa dela aldarrikatu. Hain ezberdinak ote dira ordea, antzerkia eta kontalaritza?

Badira liburuak ikasbideak direnak, etengabe beraingana ekartzen zaituztenak zalantzak argitzen lagun. Dario Fo antzerkigile italiarraren *Mannuale Minimo dell'attore* idatzia antzerkizalarentzat ezinbesteko liburua da. Liburuak antzerkiaren oraingo eta aspaldiko kontuak haizatzen ditu. Horien artean,



DANI BLANCO



Ipuin kontalaritza zertan den, nondik nora jotzen duen jakiteko modurik errazena kontalariak ikustea da, ezagutzea



Kontraerreforma garaiko testu bat aipatzen du, Carlo Borromeo Kardinalaren laguntzailea zen Ottolellik komikoei buruz esandakoa: “ (...) komikoeak ez dituzte errepresentazio guztietan komedia berriaren hitz berberak esaten, aldioro asmatzen dute, muina ikasiz, atal txikitzen eta une zehatzetan, ondoren modu inprobisatuan errezipitatu, modu librean, naturalean eta graziosotan trebatuz. Publikoan lortzen duten efektua sekulako parte-hartzea da, modu natural horrek grinak, emozioak, eragiten ditu, arrisku handikoak, zentzuen eta lizunkeriaren moralik gabeko festaren goresmena baitira, jokabide oneko kontrakoak, jendartearen arau santuen oldartzeari deiak, behe jendearen artean nahasmen handiak sortzen dituztenak”.

Tira, ez dut uste tipo honen iritzi komediantek eta kontalariak ama ezberdineko semeak izango zirenik. Hala ere, ipuin kontalaritza zertan den, nondik nora jotzen duen jakiteko modurik errazena kontalariak ikustea da, ezagutzea. Euskal kontalaritzaren erakusketa ederra izango da Bermeon Euskal Kontalarien V. Festa aitzakia. Irailaren 25ean eta 26an. Bertan ikus ahal izango dugu delako Ottolelli hark arrazoia ote zuen. ■

TXANDAN

Igor Estankona



Urri lehenengoak 11. Igorreko kultur etxean bildu ginen utopikoak, burujabetzari buruz hitz egiteko, geure errepublika nondik eraiki genezakeen hausnartzeko.

Adierazi EHk deitu eta debekatutako manifestazioaren ostean deitutako manifestazioa ere debekatu egin zuten arren, halako baikortasun neurridun batek hartu gintuen arratiarrak, geure buruenganako konfiantza berreskuratu izan bagenu bezala, aspaldiko partez.

Gure Baskoniaren abortua hil zutenek ez gaituzte desagerrarazi.

Hil dituzten kaleei izena ematen dieten izenak hil

Irailak 11

dituzte, gure hagin zatiekin batera erortzen diren ahoak hil dituzte, odolarekin, makilarekin eta minik ematen ez duten hitzekin, inoiz zutunik gaudela hil dute oinpean lurra. Desbideratu dute erreka. Hegazkinekin hil gintuzten eta oraindik ere txarrean maite gaituzte. Ilearen zuztarretik hiltzen dute, eta guk etsi-etsian hil aurretik hil izan dugu, hilzorian hil izan dugu, biktimak bezala hil izan dugu.

Baina biktima izateari uzteko asmoz bildu ginen Igorren, 2010eko irailaren 11n, anai-arreba katalanen kantuak entzuten genituelarik haizeak ekarriak, independentziaren banderaren azpian. ■